

## § Santiago Sarasola: “Bikain ziurtagiriak erabiltzaileen aurrean adeitasuna sorrarazten du”

- TSST Tolosa-Donostia ibilbideko autobus konpainiaren gerentea da Santiago Sarasola. Aipatu konpainia aitzindaria da, Lasarte-Oriako enpresen artean, euskararen erabilera normalizatzen bere enpresan. Buruntzaldeko lan mundua euskalduntzeko egitasmotik bideratutako galderei erantzun die Sarasolak, eta hemen jaso ditugu ideia nagusietako batzuk. Elkarriketa osorik irakurtzeko [hemen](#)
- “Euskararen erabilera nabarmena da enpresa barruan. Euskara ama hizkuntzatzat dutenek etengabe erabiltzen dute eta euskaldun berriak ere ahal duten heinean euskaraz mintzatzen dira”.
- “Enpresa barruan euskara plana martxan jartzearekin euskaraz lan egiteko aukera ikusi zuten langileek, euskara jakin baina erabiltzen ez dutenen artean ere euskara lantzeko aukera ezin hobea eta kanpotik etorritakoek integrazio-aukera bezala”.



## Baietz gurean! aurkeztuta

- Buruntzaldeko 6 udalerriek **Baietz Gurean!** egitasmoa jarri dute abian euskararen erabilera sustatzeko 10 langiletik gorako enpresetan, eta otsailaren 10ean eskaini zuten prentsaurrekoan eman zuten horren berri.
- Helburu nagusia da, udalaren aholkularitza eta diru-laguntzarekin ahalik eta enpresa gehien jartzea euskararen erabilera normalizatzeko bidean.
- Informazio gehiago [hemen](#)



## L AB: “tren enpresetan euskara diskriminatzen da”

- Gasteizko Gobernuaren Garraio Sailak EuskoTren zein Metro Bilbaon indarrean diren euskara planak ezabatu nahi dituela jakinarazi du LAB sindikatuak prentsa ohar bidez. Bi enpresotako azken lan eskaintzek ez omen dute jasotzen euskara jakitearen derrigortasuna.
- Era berean, salatu dute, gaur egungo EuskoTren zein Metro Bilbaoko kudeatzaileek ez dituztela euskararen erabilera sustatzeko enpresa hitzarmenak betetzen.
- Informazio gehiago [hemen](#)

## % 77k euskara ulertzen du EAEn

- Eusko Jaurlaritzak “euskara: erabilera, jarrerak, politikak” ikerketa argitara eman berri du eta emaitzak aintzat hartuta, EAeko biztanleen %77k ulertzen du euskara. Euskaldunok gogoan izateko moduko datua, ezta? Badira beste datu kezagarriagoak, ordea.
- Lan esparruko ohiko hizkuntza, ordea, gaztelania da, eta %10 inguru besterik ez da euskaraz aritzen ikerketaren arabera.
- Ikerketaren emaitzak ikusi nahi izanez gero sakatu [hemen](#)

## G Gida-baimena euskaraz: sarituak

- Buruntzaldean 34 pertsonak gainditu dute 2010ean gida-baimena eskuratzeko euskarazko azterketa teorikoa (47 aurkeztu ziren). Gainditu duten guztiek izan dute zozketan parte hartzeko aukera, eta auto-eskola bakoitzeko bat atera da irabazle. Zazpi izan dira irabazleak eta dohainik atera zaie azterketa teorikoaren faktura.
- 2011n jarraipena izango du egitasmoak.
- Sarituak eta Informazio gehiago [hemen](#)



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urdineta eta Usurbilgo Udalak. Euskarako Batzordeak.

[www.buruntzaldea.org](http://www.buruntzaldea.org)